



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO UZTAILAREN 30EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka

Etorri diren zinegotziak:

Hanot Karrera Amondarain
Victoria Rodriguez Feloaga
Eleuterio Sanchez Garcia

Idazkaria: Arantza Arrue Etxeberria

Ibarran 2015eko uztailaren 30ean udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen eta behin-behineko idazkari lanetan Arantza Arrue Etxeberria.

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

AURREKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

2015eko uztailaren 10ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015eko uztailaren 10ean eginiko Tokiko Gobernu Batzordearen akta.

BIGARRENA:

2015EKO UZTAILAREN 17KO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN AKTA

2.1 UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan hartuta Uzturpe Ikastolak wifi sistema jarri zuela duela hilabete batzuk eta bertako hainbat guraso kezkatuta agertu direla sistema horrek igortzen dituen uhin elektromagnetikoen umeengan izan dezaketen eraginarekin.

Kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzordeak 2015eko apirilaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, wifi sistemaren eragina neurtzeko azterketa abian jartzea erabaki zuela.

Kontuan hartuta Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak eskatutako aurrekontuen arabera honokoak jaso dituela Uzturpe Ikastolan aipaturiko neurketak egiteko:

ENPRESA	ZENBATEKOA (€)
AUDIOLAB	1.452
FUNDACION VIVO SANO	2.722,50
GEOBIOTEK	1.331

Kontuan hartuta Ibarra Udala 2015eko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.227.172.10.07 partidan 2.000 euro dituela azterketa hori finantzatzeko.

2014ko uztailaren 10eko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: GEOBIOTEK enpresari esleitzea Uzturpe Ikastolan wifi sistemak igortzen dituen uhin elektromagnetikoen azterketa egiteko lana, guztira 1.331 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.227.172.10.07 2015 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri aurrekontua aurkeztu duten hiru enpresei ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

2.2 PINUDIA ATERATZEKO BAIMENA: 01319 ETA 01366 PARTZELAK

2015eko uztailaren 8an 01319 eta 01366 erreferentziadun partzelatako jabeak bertan dagoen pinudia ateratzeko baimena eskatu dio Ibarra Udalari, guztira 1,88 Ha izanik.

Kontuan hartuta 1. pausoa GFaren baimena lortzea dela, eta beraz, berau aurkeztu behar diola Udalari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan hartuta kamioiarekin erabiliko den bidea ondo utziko dela bermatzeko helburuarekin Ibarako Udalak 1.000 euroko fidantza eskatzen duela Ha bakoitzeko; kasu honetan, 1,88 Ha izanik 1.880 euroko fidantza litzatekeelarik.

Kontuan hartuta Izaskungo herri bideetan ibiltzeko tonelada kopuru maximoa 15 dela.

2014ko uztailaren 10eko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: 01319 eta 01366 partzelatako jabeari pinudia ateratzeko baimena ematea, baldintza hauekin:

- a) Udalari GFaren baimena aurkeztu behar dio.
- b) Eskatzaileak pinudia ateratzeko 1.880 euroko fidantza jarri beharko du, kamioiarekin erabiliko duen bidea behar bezala utziko duela bermatzeko.
- c) 15 toneladatik gorako kamioiekin ezin ibiliko da

BIGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau eskatzaileari

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitzari.

2.3 SILO BOLAKO PLASTIKOEN BILKETA

2015eko maiatzaren 21ean silo bolako plastikoen bilketa izan zen, Tolomendiren bilketa egutegiari jarraituz. Txumitxak silo bolako plastikoak nahastuta ekarri zituen beste hondakin mota batzuekin: arbol adarrak, lur pila, babarrunarentzat sareak, eta abar.

Bilketaz arduratzen den langileak aipaturiko zaborra eskuz bereizten jardun zuen 3 orduz, bilketa egunaren biharamunean. Jasotakoa birziklapen plantara eraman zuen baina plantan ez zen onartua izan eta zabortegira eraman zuten. Guztira 14 tm ziren eta zabortegiko faktura 680,67 eurokoa da, BEZ barne.

Aipaturiko zabortegiko faktura silo bolako plastikoak biltzeaz arduratzen den enpresari iritsi zaio eta honek Tolomendiri kobratu dio. Tolomendik, bere aldetik, Ibarako Udalari bideratu dio sortutako zaborraren gastu hori.

Halaber, maiatzaren 22an bilketako langileak jasotzerik izan ez zuen zaborra udal brigadaren pabilioi ondoan geratu zen ekainaren 24a bitartean, Tolosaldeko Mankomunitatearen laguntzarekin non onartuko zuten erantzunaren zain. Hasiera batean Sasietara eramatea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurreikusten bazen ere, Contenedores Ibarraren laguntzarekin azkenean Mutiloara eraman zen eta hemen ere beste gastu bat sortu zen, 128,26 eurokoa.

Kontuan hartuta Tolomendik indarrean duen silo bolako plastikoen bilketa zerbitzua behar bezala egiten ez bada ezusteko gastuak sortzen direla, kasu honetan Txumitxak eragindakoaren modukoa.

Kontuan hartuta Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikaria Txumitxarekin bilera bat antolatzen saiatu dela ekainean eta uztailan zehar, arrakastarik gabe.

Kontuan hartuta RECUPERADOS ISASI S.L. enpresak 2015eko ekainaren 11n bidali ziola 14153 faktura Tolomendiri eta geroztik ordaintzeke dagoela.

2014ko uztailaren 10eko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Jakinaraztea Txumitxari RECUPERADOS ISASI, S.L.ren 14153 faktura ordaindu behar duela, guztira 680,67 euro, arazoaren sortzaile den aldetik.

BIGARRENA: Jakinaraztea Txumitxari Contenedores Ibarra Mutiloara eramandako zabor kopuruagatik sortutako 128,26 euroko gastua ordaindu behar duela, arazoaren sortzaile den aldetik.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitzari.

2.4 GAIKAKO ZAKARRONTZIAK. HERRITARREN ESKAERAK

Azken hilabeteotan ugaritu egin da hainbat herritarrek gaikako zakarrontzietan utzitako zabor poltsa kopurua, eta garbitasun arazoak sortzen ari dira. Hori dela eta, bi eskaera jaso ditu Udalak:

I) JULIAN GAIARRE 27 KALEAN

2015eko apirilaren 24an herritar batek bere etxe ondoko gaikako zakarrontziak kentzea eskatu zion Udalari. 1. pisua baju bat da eta, antza, zakarrontzi hauek oso gertu geratzen dira. Egunero bizilagun ezberdinek euren zabor poltsak bertan uzten dituzte eta egoera jasanezina bihurtu da: usain txarra eragiten dute, euli handiak egotea, eta abar. Leihua ezin ireki aurkitzen dira.

II) APATTERREKA 1 KALEAN

2015eko uztailaren 13an herritar batek bere etxe ondoko gaikako zakarrontziak kentzea eskatu zion Udalari. Antza, beste auzo batzuetan bizi diren herritarrek gerturatzen dira euren zabor poltsa zakarrontzi horietan uztera; zakarrontzietan ez ezik, lurlean ere uzten dituzte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2014ko uztailaren 10eko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Julian Gaiarre 27 eta Apatterreka 1 kaleetan dauden gaikako zakarrontziak kentzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri udal brigadako arduradunari ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eskatzaileei ematea.

HIRUGARRENA:

2015EKO UZTAILAREN 21EKO OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN AKTA

3.1 HAURRESKOLA GABRITZEKO ZERBITZUA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK ETA ESPEDIENTEA ONARTZEA

2015eko abuztuaren 31n Udalak Villar enpresarekin duen haurtzaindegia garbitzeko zerbitzuaren kontratua amaituko da.

Orain arte Villar enpresak Emeterio Arreseko haurreskola eta San Inazioko haurtzaindegia garbitu ditu.

Maiatzaren 8an egindako Gobernu Batzordean, erabaki zen Uzturpe ikastolari diru-laguntza bat ematea “Hazi eta hezi” proiektua aurrera eraman dezan. Proiektu horrek eraikinen garbiketa jasotzen du. Hori dela eta, orain egingo den kontratu berrian kukumiku haurtzaindegia garbiketa sartuko litzateke soilik.

Kontuan izanda, apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 85.2 artikuluan dioena; Toki Araubidearen arloko xedapenen Testu Bateginak, 95.2 artikuluan dioena, hau da Administrazioek kudea ditzaketela zuzenean nahiz zeharka zerbitzu publikoak.

Kontuan izanda azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretua, Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenaren 10 eta 109 art.ak.

2015eko uztailaren 21eko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea harreskolaren garbiketa (San Inaziokoa) esleitzeko publizaterik gabeko prozedurako Baldintza Juridiko-Administratibo eta Teknikoen pleguak.

BIGARRENA: Publizaterik gabeko prozedura bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarako haurreskolaren (San Inazio) garbiketa zerbitzua martxan jartzea. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

HIRUGARRENA: Hiru enpresa hauek gonbidatzea:

- Villar S.A.
- Distribisual S.L.
- Uzturpe koop. garbikerta

3.2 SAN INAZIOKO HAUR PARKEAREN HORNIDURA ETA MUNTAIAREN ESLEIPENA

Ibarako Udalak San Inazioko haur parkearen egoera txarra ikusita, eta haurrentzako arriskutsu dagoela ikusita, kendu eta berria jartzeko asmoa du.

2 urte inguruko haurrentzat zuzendu nahi da parkea, oso gertu 2-6 arteko haurrentzat baitago beste bat.

1 0000.609.171.00.00 2015 partida eratu zen gastu honi aurre egiteko, 20.000 €koa. Bez kanpo, 18.000 €baino gutxiago denez, kontratu txikia izango litzateke.

Azalera handitzeko eragozpenik ez degoela ikusi da eta horrek elementuren bat gehiago sartzeko aukera ematen du.

Hautzaindegiko irakasleekin gaia ikusi ondoren azaldu zuten 2 urterekin joko sinbolikoa gustokoa dutela

4 enpresei eskatu zaie aurrekontua:

- GARRA S.L.
- MADERPLAY
- HAGS
- LURKOI

Honako proposamenak aurkeztu dituzte:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- GARRA S.L.

Elementuak: Materiala inox eta HDPE

- Minisweet konjuntua
- Kolupio doblea
- Kotxe bat (joko sinbolikoa)

Zorua: In situ 40mm SBR kapa + gainean EPDM.

Prezioa: 16.522,30 €+ 3.469,68 €(BEZ %21) = 19.991,98 €

2.- MADERPLAY

1. aukera:

Elementuak: (Egurrezkoak)

- Torreta multijokoa
- Kolupio doblea
- Balantzin binakakoa
- Balantzin bakarkakoa

Zorua: In situ SBR kapa + gainean 1 zm EPDM.

Prezioa: 14.935,94 €

2. aukera:

Elementuak:

- Estructura handiagoa
- Kolupio doblea
- Tatxuelak
- Perretxikoa

Zorua: In situ SBR kapa + gainean 1 zm EPDM.

Prezioa: 15.721,93 €

3.- HAGS



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Elementuak:

- Estruktura multijokoa
- Balantzin bakarkakoa

Prezioa: 10.256,0 €+ 2.153,76 €(BEZ %21) = 12.409,76 €

Zorua: In situ 40mm SBR kapa + gainean EPDM= 4.900 €+ 1.029 €(BEZ %21) = 5.929 €

Guztira= 12.409,76 €+ 5.929 €= 18.338,76 €

Zorua Garra jartzen dio.

4.- LURKOI

Elementuak:

Estruktura handia

1. AUKERA: Zorua: In situ 30mm SBR kapa + gainean EPDM 10 mm.

Prezioa: 13.682,82 €+ 2.873,39 €(BEZ %21) = 16.556,21 €

2. AUKERA: Zorua: CHILDSPLAY.

Prezioa: 12.820,69 €+ 2.692,35 €(BEZ %21) = 15.513,04 €

2015eko uztailaren 21eko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: GARRA S.L. enpresari esleitzea San Inazioko haur parkea 16.522,30 €+ 3.469,68 €(BEZ %21) , guztira 19.991,98 €an, aurkeztutako beste aukerak baino egokiagoa ikusten delako proposamena.

Arrazoiak honakoak dira:

- Aukeratutako elementuak oso egokiak
- Elementu kopurua: Haur gehiagok jolasteko aukera



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Materiala egokia: Mantenimendurako egokia
- Prezioaren barru
- Bermea: Elementiak 10 urte eta zorua 5 urte.

1 0000.609.171.00.00 2015 partidatik finantzatuko da haur parkearen hornidura.

BIGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau aurkeztutako empresa guztiei: Garra S.L., Maderplay, Hags eta Lurkoi.

HRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetza sailari.

LAUGARRENA:

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO, ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK ETA ESPEDIENTEA ONARTZEA

Kontuan izanda etxez etzeko laguntza zerbitzua martxan jarri behar dela.

Ikusi da prozedura ireki bidez egingo den lehiaketa irekiaren baldintza juridiko-administratibo eta teknikoaren zirriborroa etxez etzeko laguntza zerbitzua kontratatzeke.

Kontuan izanda , apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 85.2 artikuluan dioena; Toki Araubidearen arloko xedapenen Testu Bateginak, 95.2 artikuluan dioena, hau da Administrazioek kudea ditzaketela zuzenean nahiz zeharka zerbitzu publikoak.

Kontuan izanda azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretua, Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenaren 10 eta 109 art.ak.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea etxez etzeko laguntza zerbitzu hori esleitzeko lehiaketa irekiaren Baldintza Juridiko-Administratibo eta Teknikoen pleguak.

BIGARRENA: Lehiaketa deialdia egitea, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarra etxez etzeko laguntza zerbitzua esleitzeko. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean iragarkia jartzea, etxez etzeko laguntza zerbitzua esleitzeko lehiaketa irekiarena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BOSGARRENA

SAN BARTOLOME JAIAK 2015: EGITARUAU ETA AURREKONTUAREN AURREIKUSPENA

Ikusirik alkateak aurkeztutako 2015eko San Bartolome jaien egitaraua eta aurrekontuaren aurreikuspena.

SANBARTOLOMEAK 2015: Egitaraua

* ABUZTUAK 21, OSTIRALA

- **11:45:** XXVII. San Bartolome **bozeto lehiaketako sari-banaketa**, San Bartolome plazan.
- **11:45:** **Haurren eta gaztetxoek koadrilak plazan elkartuko dira.**
- **12:00:** **Jaien hasiera: Suziri jaurtiketa Ibarako errepresaliatuen senide eta lagunen eskutik** eta Bartola eta Bartoloren jaitsiera kiroldegitik plazaraino, erraldoien eta buruhandien konpartsarekin batera. Ondoren, haur eta gaztetxoek koadrilen kalejira herrian barrena.
- **Ondoren: Ibarako Merkatarien Elkarateak eskainitako hamaiketakoa**, San Bartolome plazan.
- **14:30:** **Haurren eta gaztetxoek bazkaria** San Bartolome plazan, herriko gurasoen eskutik.
- **16:00:** **Haurrentzako jokoak** Txiribitu Astialdi taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
- **17:30:** **Apar festa**, Emeterio Arrese parkean
- **18:00:** **Haurrentzako paseoak zalgurdian** Asier Lopetegiren eskutik, San Bartolome plazan.
- **21:00:** **Elkartasun afaria**, San Bartolome plazan.
- **22:30:** **Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.

- **23:30: Herriko musikarien** kontzertua. Ondoren, **GABEZIN** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 22, LARUNBATA**

- **09:00: Diana GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.
- **11:00: ANTZINAKO EZKONTZA** San Bartolome plazan **Giroarte dultzaina taldeak** eta **herriko trikitilariak** alaituta, Hauspoa Kultur Elkartearen eskutik.
- **14:30: TXEKOR-JATEA**, Emeterio Arrese parkean, Sendi-Ekintza elkartearen eskutik.
- **17:00:** Haur eta gaztetxoentzat **DJ Jon diskofesta**, San Bartolome plazan.
- **18:00: Helduen danborradaren entsegua**, Azkue auzoan.
- **19:30: Sokadantza** Lauburu Kirol Elkartearen omenez, Alurr Dantza Taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **22:45: DJ ANDONI**ren emanaldia, Bizi-Nahi elkartearen aurrealdean.
- **22:45:** Helduen danborrada **IRAUNKORRAK** txarangak alaituta.
- **23:30: SKAKEITAN** eta **IRATZAR** taldeen emanaldia, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 23, IGANDEA, kirolaren eguna**

- **09:00: Diana** herriko trikitilarien eskutik.
- **10:00:** Haurrentzat **3x3 futbol txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Lauburu Kirol Elkartearen eskutik.
- **11:00: Erretiratuentzako hamaiketakoa**, Bizi-Nahi elkartearen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **11:30: Toka eta bola txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Ibarra Kiroel Elkartearen eskutik.
- **11:30: Haur eta gaztetxoentzat toka eta bola txapelketa** (6-12 urtekoek heldu batekin bikoteka parte hartu beharko dute), Emeterio Arrese parkean Ibarra Kiroel Elkartearen eskutik.
- **11:30: Xake gunea**: Bat-bateko xake partiden erakustaldia, ikastaro txikia, xake erraldoia, eta abar, Emeterio Arrese parkean, Ibarra Xake Elkartearen eskutik.
- **11:45: Patata tortilla eta edari-dastatze lehiaketa**, San Bartolome plazan, Ibarra Kiroel Elkartearen eskutik.
- **17:30: Mendi bizikletarekin trebezia erakustaldia Markel Uriarteren** eskutik, San Bartolome plazan.
- **19:00: San Bartolome bezperako kanpai-jotzea eta salbea**, San Bartolome elizan.
- **19:30: Giza proba: Ibarra eta Anoeta herrien arteko desafioa**, Euskal Herria kalean Ibarra Soka-tira taldearen eskutik.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoko txinpartekin erre baitaiteke.
- **22:45: Alurr Dantza Taldearen “BI PUNTUREN ARTEAN” emanaldia**, Emeterio Arrese parkean.
- **23:30: XEIC! eta VENDETTA** taldeen emanaldia, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 24, ASTELEHENA, San Bartolome eguna.**

- **09:00: Diana** herriko txistularien eskutik.
- **10:30: Meza nagusia**, San Bartolome elizan.
- **11:30:** Haurren danborrada **IRAUNKORRAK** txarangak alaituta.
- **12:00: Piparrak eta tomateak**, San Bartolome plazan, herriko baratzezainek, Zubelzu Piparrak etxeak, Ibarlur Piparra Kooperatibak eta Txumitxak eskaini eta zerbitzatua.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **18:00: Pilota partidak:** Jubenilak eta afizionatuak. Belabieta pilotalekuan, Sendi-Ekintza pilota eskolaren eskutik:
 - Jubenilak: **Ander Plazaola-Aitor Eraunzetamurgil (Ibarra) // Ander Jauregi – Eneko Morales (Tolosa)**
 - Afizionatuak: **Mikel Rafael-Mikel Elola // Mikel Beloso-Iñigo Altuna**
- **18:00: Dantza solte txapelketa,** San Bartolome plazan.
- **20:00: Bertsolarien emanaldia: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Adur Gorostidi eta Iñigo Gorostarzu,** Emeterio Arrese parkean.
- **21:00: Barrikotea,** San Bartolome plazan (Norberak bere afaria eta baxera eraman beharko du).
- **22:30: Zezensuzkoa,** San Bartolome plazan.
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **23:30: BELARMIÑAK eta LAIN** taldeen emanaldia, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 25, ASTEARTEA: Koadrilen eguna.**

- **09:00: Diana GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.
- **11:45: Koadrilak San Bartolome plazan elkartuko dira.**
- **12:00: Koadrilen kalejira BONBERENEA** txarangarekin eta **GIROARTE** dultzaina taldearekin batera.
- **14:30: “Gure esku dago”** argazki erraldoia, San Bartolome plazan.
- **14:45: Koadrilen bazkaria,** Emeterio Arrese Parkean.
- **18:15: “Eonian” elektrotxarangarekin koadrilen kalejira** herrian zehar.
- **18:30: SALTOKA** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.
- **22:30: Zezensuzkoa,** San Bartolome plazan.
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.

- **00:00:** Osasun etxetik San Bartolome plazaraino **piparra eramango da** eta ondoren **erreko da**.
- **00:45:** **ZESUMA** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.
- **02:30:** **Koadrilen arteko jolasak**, San Bartolome plazan.

*** IRAILAK 13, IGANDEA.**

- **10:00:** **Gazteentzako txirrindulari-lasterketa**, XXXIV. San Bartolome saria, Ibarra Kirol Elkartearen eskutik.

IBARRAKO JAIK-2015: Aurrekontuaren aurreikuspena

KONTZEPTUA	AURREISKUPENA
MUSIKA TALDEAK	26.284,00 €
Gabezin	968,00 €
Lain	1.694,00 €
Iratzar	968,00 €
Belarmiñak (afaria)	100,00 €
Herriko abeslariak (afaria)	300,00 €
DJ Andoni	363,00 €
Vendetta (ekipo gabe)	7.865,00 €
Xeic!	3.388,00 €
Skakeitan	3.388,00 €
Zesuma	1.050,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Musikoen afariak	700,00 €
Musikoen edariak	100,00 €
Soinu eta argi ekipoaren alokairua	5.400,00 €
KIROLAK	6.900,00 €
Herri-kirolak	1.300,00 €
Harrien alokairua	400,00 €
Afaria	900,00 €
3x3 futbol txapelketa:	1.125,00 €
Kamisetak (120)	780,00 €
Kartelak	30,00 €
Trofeoak	315,00 €
Pilota partidak	1.230,00 €
Pilotariak	1.200,00 €
Pilota partidetarako ura	30,00 €
Toka eta bola txapelketa:	750,00 €
* Haurrentzat bola jokoak (2)	125,00 €
* Haurrentzat goxokiak	75,00 €
* Laguntzaileei hamaiketakoa	100,00 €
* Diru-sariak	450,00 €
Markel Uriarteren erakustaldia	375,00 €
Txirrindulari lasterketa dirulaguntza:	2.040,00 €
* Gipuzkoako Txirrindulari Federakuntza	1.000,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

* Lore-sorta	40,00 €
* Garaikurrak eta txapela	400,00 €
* Laguntzaileei hamaiketakoa	100,00 €
* Kartelak	450,00 €
* Bestelakoak	50,00 €
Xakea dirulaguntza:	80,00 €
* Monitoreak (1 x 2 ordu x 15,00 €)	30,00 €
* Xake erraldoiaren alokairua	50,00 €
MUSIKARIAK	6.702,00 €
Dultzaineroak Giroarte	1.200,00 €
Herriko musikariak dianak	500,00 €
Gaztetxoek txaranga	600,00 €
Iraunkorrek txaranga (helduen dan.)	1.452,00 €
Iraunkorrek txaranga (haurren dan.)	1.210,00 €
Bonberoenea txaranga	1.500,00 €
Txistularia (San Bartolome)	60,00 €
Txistulariak (sokadantza)	180,00 €
JARDUERAK	5.630,00 €
Bertso saioa	1.200,00 €
Barrikotea: Sagardoa	300,00 €
Buruhandiak konpartsa	250,00 €
Dantza solte txapelketa:	3.330,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Federazioko gastuak	100,00 €
Epaileen gastua (4x70,00 €)	280,00 €
Txistulariak eta trikitilariak (6 x 150,00 €)	900,00 €
20 bikote dieta	1.400,00 €
Diru-sariak	450,00 €
Garaikurrak	200,00 €
Tortilla eta edari dastaketa lehiaketa:	550,00 €
* Materiala eta osagaiak (patatak, arrautzak...)	320,00 €
* Sariak	230,00 €
ALURR JAIALDIA	2.052,00 €
Materiala	240,00 €
Kartelak	150,00 €
Eskuprograma	100,00 €
Alurr dantza taldea afaria (30 pertsona)	110,00 €
Soinua eta argiak	1.452,00 €
KOADRILEN EGUNA	4.563,00 €
Helduen koadrilei dirulaguntza	2.000,00 €
Eonian elektrotzaranga	633,00 €
Saltoka taldearen emanaldia	950,00 €
Musikoen bazkaria (31x25,00 €)	780,00 €
Haurren koadrilei diru-laguntza	200,00 €
FESTA HERRIKOIA	1.750,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ardo goxoa	40,00 €
Materiala	150,00 €
Idiak	600,00 €
Erroskilak	160,00 €
Hamaiketakoa	450,00 €
Panperoa (musikoen bazkaria:14x25,00 €)	350,00 €
DANBORRADA	1.900,00 €
Haurren danborradarako gozokiak	100,00 €
Danborradarako makilak, danborrak...	300,00 €
Materiala (konfetiak, txalekoa, ura...)	150,00 €
Traktorea eta traktorista	120,00 €
Txarangaren afaria (27,50 €x 12)	330,00 €
Helduen danborrada laguntza	400,00 €
Karroza atontzea	500,00 €
BARTOLOME EGUNA	1.500,00 €
Komunitate parrokiaren hamaiketakoa	400,00 €
Piparra eta tomateak	700,00 €
Ardoa	400,00 €
AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK	13.761,79 €
Anbulantzia zerbitzua	1.627,54 €
Anbulantzia zerbitzua (txirrindularitza)	500,00 €
Aironflix txuria	200,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Argazkien errebelatua	350,00 €
Argazki albunak	80,00 €
Argindarra boletinak	1.161,60 €
Bailak, toldoak.. (Alki Anoeta)	1.000,00 €
Bailatzeko zinta	200,00 €
Butanoak	250,00 €
Elektrizitate kontsumoa (plaza)	350,00 €
Elektrizitate kontsumoa (Emeterio Arrese)	170,00 €
Elektrizitate materiala	300,00 €
Emeterio Arreseko txaboletarako materia	100,00 €
Errepidea isteko tasa (Eusko Jaurlaritza)	20,00 €
Garbiketak	500,00 €
Garbigailuak alokatzea	500,00 €
Garbigailuentzat hartuneak	100,00 €
Giltzen kopiak	50,00 €
Goxokiak (jaien hasiera)	60,00 €
Harea	100,00 €
Ikurrinak (zintzilikatzekoak)	130,00 €
Izotza	75,00 €
Komunen alokairua	1.386,00 €
Komunetarako materiala	100,00 €
Kontenedoreak (harea)	100,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Maxkuriak	100,00 €
Megafonia	2.200,00 €
Oroigarriak (herriko abeslariak)	100,00 €
Pala eta brigadarako hainbat material	150,00 €
Seinalizazioak	100,00 €
Seinaleak plastifikatzea	30,00 €
Suziriak	153,40 €
Tintoreria	100,00 €
Trofeoak	550,00 €
Zezen suzkoa afaria	125,00 €
Zezen suzkoa (tekniko txartelak)	10,00 €
Zezen suzkoarentzat kargak	733,25 €
EGITARAUA	850,00 €
Bozeto lehiaketa sariak	150,00 €
Publizitatea	300,00 €
Programa banaketa	400,00 €
HAMAIKETAKOAK	800,00 €
Jubilatuak	400,00 €
Merkatarien elkarte laguntza	400,00 €
HAURRENTZAT JARDUERAK	2.155,50 €
Haurrentzako jokoak (Txiribitu)	200,00 €
DJ Jon Urbieta	1.149,50 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Haurrentzat apar jaia	506,00 €
Zaldi-gurdian paseoak	300,00 €
EZUSTEKOAK	2.000,00 €
SGAE EGILE ESKUBIDEAK	2.000,00 €
2015eko egile eskubideak	2.000,00 €
GUZTIRAKO GASTUA	78.848,29 €
DIRUSARRERAK	
Salmentak (painueloak...)	250,00 €
Kutxabank	240,00 €
Ferianteak (Udal tasa)	1.800,00 €
Guztirako sarrerak	490,00 €

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015eko sanbartolome jaietako egitaraua eta aurrekontuaren aurreikuspena

SEIGARRENA

FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITUREN DEPARTAMENTUARI ESKATZEA IBARRAKO IDOIAGA KALEA FRESATU ETA ASFALTATZEA EUSKALHERRIA 2 ZK.TIK LEABURUKO ERREPIDEKO ZUBIRAINO (GI3212-PK0)

2014 urtean bilera batzuk izan ziren Ibarra Udala eta Foru Aldundiko Bide Azpiegitura departamentuaren artean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bilera haien helburua zen eskuhartze azterketa bat egitea helburu honekin: Euskal Herria kaleko segurtasuna hobetzea eta oinezkoentzako hobekuntzak egitea.

Udalak zazpi gune arazotsu somatu zituen eta Aldundiko teknikari Antxon Garmendiak eskuhartze azterlanak egin zituen. Hortik abiatuta, Foru Aldundiak bide segurtasunerako hobekuntza bezala oinezkoen pasabidea egin zuen Leaburuko errepidean 2014 urtearen bukaeran.

Udalak, elkarrizketa haien harira agerian utzi zuen Idoiaga kalearen asfaltatu egoera txarra (GI 3212), berau DFGIVrena eta eskatu zuen diputazioko errepidetako mantentze eta asfaltatu tekniko arduradun batek ebaluazio bat egiteko.

Diputazioko Teknikari Jose Ignacio Navarro jn.ak errepidearen egoera txarra aitortu zuen eta 44.421,52 euroko aurrekontua zuen hainbat lan egitea ikusi zuen beharrezko.

Ibarrako alkateak Joseba Altube jn.ari jakinarazi zion eskaera errepidearen egoera txarra zela eta, beztailleengan kezka sortzen baitzuen.

Harrezkero, ez da berririk jaso diputazioko departamentutik, eta asko dira udalean jasotzen ditugun kezak bide hori konpontzeko eskatuz, bertan txirrindulari asko ere ibiltzen baita, ibilgailuez gain.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Foru Aldundiko Bide Azpiegituren departamentuari eskatzea bide horren fresatu eta asfaltatua egiteko eta lan hori presazkotzat jotzea.

ZAZPIGARRENA:

IBARRAKO IDOIAGA GARAJEETAKO KOMUNITATEAREN ESKAERA:IDOIAGA PLAZAREN ZOLADURA GASTUAK

Ibarrako Idoiaga garajeetako komunitateak idatzi bat aurkeztu du 2015eko ekainaren 18an (sarrera erregistroa 1061 zk.). Bertan honakoa eskatzen dute: Arartekoaren idatzia aintzat hartuta (2010/08/3koa, erantsirik doa) Idoiaga plazaren zoladura gastuak beregain hartzeko, kostua 177.013,48€ da gehi BEZ.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2014ko irailaren 18ko bilkuran erabaki zuen parte hartzea Idoiaga plaza eraberritzeko gastuetan. Erabilera publikoa duela argudiatuz, jabegoen komunitateak 402.930,08€ko exekuzio proiektua aurkeztu zuten, eta Ibarrako Udalari gastu hauek beregain hartzea proposatu zion: aurretiko lanak, zoladura eta hormigoiak, hiri altzariak, urak hustutzeko instalazioak, seinaleztatzea eta haur jolasen parkea. Ibarrako udalak erabaki zuen kalteak erabilera



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

publikotik kanpo izan zirela eta proposaturiko gastuak ez zituela beregain hartuko. Ibarra udalak asmoa agertu du aurretiko lanetan parte hartzeko (plazako hiri altzariak eraberritzeko erantzukizuna hartu du) , hala nola farolak, bankuak, seinaleak , lorontziak kendu eta bildu. Horretaz gain, 2015eko aurrekontuan 16.507€ jartzea erabaki zuen (hiri altzarietako hobekuntza: farolak, bankuak, paperontziak, eskudelak...). Idoiaga garajeetako jabekideei jakinarazi zitzaizen 16.507€ horiek aipatu diren zereginetarako soilik erabiliko direla eta ez zoladura, hormigoia, ur hustutze instalazioak jartzeko, ulertzen baitu eragindako kalteak ez direla erabilera publikoaren ondorio izan (udal arkitektoak adierazi du bestelako arrazoiengatik izan direla). Azkenik jabekideei gogorarazten zaie dagokien EIOZ tasa ordaindu behar dutela (Ibarra edozein herritarrek bezala) Ibarra udalerrian egiten den edozein obra handi bezala.

2015eko apirilaren 20an (sarrera erregistroa 611zk.) Idoiaga garajeetako komunitateak idatzi bat aurkeztu zuen. Bertan obra lizentzia eskatzen da. Berriz ere, EIOZ tasa ez dagokiela esaten da, kentzeko eskatuz, interes publikoko obrak izateagatik. Proiektu horretan Idoiaga plazaren patologiak aztertzen dira, horien ondorioak, diagnostikoa eta trataera (8-12 orr.). Honakoa esaten da idatzian:

Plaza kaltetzen ari da uraren ondorioz eta kanpoko jarduketan eta hirigintza arloko diziplina ezagatik.

Ura sartzen da garajeen edo sotoko sabaian, arazoi hauengatik: euria , plazaren zorua osatzen duen forjatuaren estankotasun eza, aldapa gutxi , diametro gutxiko eta itxitako hustubideak, iragazgaizte eskasa eta horren eza zenbait gunetan, ginkarga, konprentzio geruzaren lodiera eskasa; ez da baztertzen gainera, iragazgaizteko teilakatzeko gutxieneko zabalera ez izatea dilatazio junduratan edo zulatuta egotea kolokatzekoan kontuz ez ibiltzeagatik.

Plazako elementu goiti- beherakoak kaltetuta daude arrazoi hauengatik: euria, haizea, iragazgaizte desegokia, autoen kolpeak, kutsadura, landaretza (kalte txikiagoak eraikinen egitura kaltetzen ez dutenak baina bai itxurari)

Behe solairuetako lokalen barruetako hezetasunak arrazoi hauengatik: euria, iragazgaizte eza petoetan, sare unitarioak osatzen dituzten legez kanpoko jarduketak saneamendu sarean , saneamendu hautsia zenbait puntutan (hezetasunak, itoginak sortuz eta hormigoia kaltetuz....)

Arrapala eta korridoreak kaltetuta daude arrazoi hauengatik: euria, aldapa nahikorik eza, diametro gutxiko hustubideak eta hustubide eza, ibilgailuen joan-etorria, iragazgaizte eza, ginkarga, konprentzio geruzaren lodiera eskasa, bandalismoa.

Hortik, hiritartzearen eraikitze akatsak (eraikitzaileari lepora dakizkiokeenak). Ibarra udalak bere egiten du erabilera publikoagatik sorten diren kalteak konpontzeko ardurara (erabilera publikoa duela ulertzen baitu) herriko beste plazekin egiten duen bezalaxe (kontuan izanda lehentasunak udal aurrekontuak eta larrialdiak baldintzatzen dituztela eta horrengatik ditu udalak lehentasunezko obrak). Baina Ibarra udalak ez ditu beregain hartzen egiturazko akatsak (eraikitzeak bertatik) dituen hiritartze batean , horiek ezin baitira leporatu ez herritarri ezta plaza



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

publikoaren erabilerari. Horregatik Ibarra udalak egoki jotzen ditu erredaktoreek proposaturiko hanbat konponbide:

Eremu berdeak kentzea iragazte arazoak gutxitzeko.

Eskailerak kentzea

Eserleku korritua kentzea zubitik barneko kalerako pasabidea oztopatzen duelako.

Horrez gain udalak Tokiko gobernuak 2014ko irailaren 18an harturiko erabakia berresten du: 2015eko aurrekontuan 16.507€ jartzea (hiri altzarietako hobekuntza: farolak, bankuak, paperontziak, eskudelak...). Idoiaga garajeetako jabekideei jakinarazi zitzaizen 16.507€ horiek aipatu diren zereginetarako soilik erabiliko direla eta ez zoladura, hormigoi, ur hustutze instalazioak jartzeko, ulertzen baitu eragindako kalteak ez direla erabilera publikoaren ondorio izan (udal arkitektoak adierazi du bestelako arrazoiengatik izan direla). Azkenik jabekideei gogorarazten zaie dagokien EIOZ tasa ordaindu behar dutela (Ibarra edozein herritarrek bezala) Ibarra udalerrian egiten den edozein obra handi bezala.

Alkate dekretu bidez (2015eko ekainak 2, 133/2015 zk.) obretako lizentzia eman zitzaion Idoiaga plaza eraberritzeko aurkezturiko proiektuaren arabera eta baldintza batzuekin.

Ibarra Idoiaga garajeetako komunitateak idatzi bat aurkeztu du 2015eko ekainaren 18an (sarrera erregistroa 1061 zk.). Bertan honakoa eskatzen dute: arartekoaren idatzia aintzat hartuta (2010/08/3koa, erantsirik doa) Idoiaga plazaren zoladura gastuak beregain hartzeko, kostua 177.013,48€ da gehi BEZ.

Ikusirik espedientea, eraberritze proiektua, udal arkitektoaren txostena, bertaratu diren gainontzeko zinegotzien adostasuna, Tokiko Gobernu Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Ez onartzea Idoiaga plaza eraberritzeko egin den eskaera hau: 177.013,48€ gehi BEZ beregain hartzea udalak. Ulertzen da eraberritze horrekin eraikitze akatsak konpondu nahi direla (eraikitze unetik bertatik dauden akatsak) eta ez erabilera publikoaren ondorioz sorturiko kalteak.

BIGARRENA: Ibarra Udalak bere borondatea erakusten du hobekuntzak egiteko antolamendu eta hiri altzarietan, hala nola, farolak, eserlekuak, paperontziak, eskudelak, 2015eko aurrekontuaren 1.0000.625.153.30.00 “Hiri-altzariak” gastuen partidatik, hain zuzen ere.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5. GALDERAK ETA ESKAERAK

Bittori Rodriguez zinegotziak azaltzen du hainbat herritarrek zabor-bilketari buruz egin dizkioten bi eskaera:

- 1) udalak dohain banatzea zabor organikorako poltsak.
- 2) Zabor-bilketan lan egiten duten langileei eskatzea kontu gehiagorekin lan egiteko, zakarrentzi askok tapak puskatuta dauzkatelako.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko goizeko hamaikak ta erdiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.